eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# GRADU AMAIERAKO LANA

## GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

## 2013/2014 ikasturtea

# IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN IZAERA INKLUSIBOA

## Herritarren konpromiso eta beharretatik, jabekuntza prozesu publiko bezain sozialera

**Egilea: Endika Vallejo Elgueta**

**Zuzendaria: Monike Gezuraga Amundarain**

**Leioan, 2014ko Ekainaren 11an**

**© 2014, Endika Vallejo**

# AURKIBIDEA

1. Sarrera………………………………………………………………………………………. 4
2. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren gaineko argibide kontzeptualak……………………. 5
    2.1. Definizioetatik abiatuz zenbait azalpen……………………………………….... 5
    2.2. Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren oinarri pedagogikoen ezaugarriak……….... 7
    2.3. IZSk sortzen dituen nahasmenak………………………………………………. 8
3. IZSren izaerak bultzaturiko prozesu demokratizatzaile eta inklusiboa………………….. 10
    3.1. Gaur egungo beharrei aurre egiteko erronka………………………………….... 10
    3.2. Norbanakoaren esperientzian eta parte-hartzean oinarritutako hezkuntza…….. 11
    3.3. Hezkuntza komunitatearen sare zabal eta finko baten eraketa………………… 13
4. Jabekuntza eta kapital sozial komunitarioa bazterketari aurre egiteko………………….. 15
    4.1. Giza kohesioa ondare sozial gisa………………………………………………. 15
    4.2. Erresilentzia eta prosozialitatea aldaketarako motore………………………….. 16
    4.3. Bazterketaren ikusezintasunaren aurka parte-hartzearen giltzarria…………….. 18
5. Ondorioak……………………………………………………………………………… 22
    5.1. IZS eta bere izaera inklusiboa………………………………………………….. 21
    5.2. Gizarte hezkuntzari eta hezkuntza inklusiboari egindako ekarpenak……….... 22
    5.3. Ezarritako helburuak eta bereganaturiko konpetentziak……………………….. 23
    5.4. Prospekzioa…………………………………………………………………….. 24
6. Bibliografia……………………………………………………………………………. 25

# IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN IZAERA INKLUSIBOA

## Herritarren konpromiso eta beharretatik, jabekuntza prozesu publiko bezain sozialera

**Endika Vallejo Elgueta**

UPV/EHU

Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lanaren barruan kokatzen den lan teoriko honek, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren gaineko informazio iturri esanguratsuenetarikoak kontuan harturik, bere izaera inklusiboa berrestea du helburu. Horretarako, metodo berritzaile honen argibide kontzeptualak azaltzeaz batera, prozesu demokratizatzaile eta inklusibo bat ematea posible egiten duten gakoak argitu eta bazterketari aurre egitea ahalbidetzen duen jabekuntza prozesuaz eta kapital soziala bereganatzeko moduaz idatzi da. Jendarte eraldaketa gizarte hezitzaileen lanbidearen eginbeharretako bat izanik, asmo hau lortzeko bide berrien emariak jaso beharko liratezke. Arrazoi horregatik, zerbitzu solidario bat eskaintzearen bitartez, ezagutzak areagotzea eta transformazio prozesu bat abian jartzen duen metodologia honen garrantziaz ohartarazten da.

*Ikasketa Zerbitzua, Elkartasuna, Jabekuntza, Inklusioa, Jendarte eraldaketa.*

The following paper, part of the Final Project in the Social Education Degree, takes into account the most significant sources about Service Learning in order to corroborate its inclusive nature. To do so, in addition to explaining the basic concepts, the keys to develop a democratic and inclusive process are thoroughly explained. Ways of achieving an ownership process and gaining social capital, both working properly against exclusion, are also detailed. Social transformation being one of the objectives of social workers, new ways should be used to achieve it. For this reason, by offering supportive services, the importance of a methodology that helps to initiate that transformation and also increases the knowledge is highlighted.

*Service Learning, Solidarity, Ownership, Inclusion, Social transformation.*

El siguiente documento, el cual forma parte del Trabajo de Fin de Grado de Educación Social, analiza la información mas significativa sobre el Aprendizaje y Servicio Solidario, con el fin de corroborar su naturaleza inclusiva. Para ello, a la vez que se explican los conceptos básicos de esta metodología innovadora, se aclaran las claves que hacen posible un proceso de inclusión y democratización, a la vez que se escribe sobre el proceso de empoderamiento y la manera de apropiarse del capital social como forma de hacer frente a la exclusión social. Siendo la transformación social una de las tareas de la profesión de la Educación Social, se deberían recoger las aportaciones recibidas por distintos cauces. Por esta razón, se advierte de la importancia de esta metodología que a través de ofrecer un servicio solidario, aumenta los conocimientos y pone en marcha un proceso de transformación social.

*Aprendizaje Servicio, Solidaridad, Empoderamiento, Inclusión, Transformación social*

## 1. Sarrera.

Gaur egungo bizimoduak behar berriak sortzen dituen bezala, premia hauei aurre egiteko irtenbide berriak bilatu behar dira. Gizatasuna gutxitu den garai honetan, hezkuntzak duen erronketako bat, izaera solidario hau berreskuratzea da. Horregatik, ikerketa teoriko honek, ekarpen desberdinez baliatuz, helburu hau lortzea posible egiten duen Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren gaineko analisi bat egiten du.

Bazterketari aurre egiteko Gizarte Hezitzaileen tresna nagusia hezkuntza izanda, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa bezalako proposamen sozio-hezitzaile baten gaineko argibideak eman eta honen inguruko ideiak jasotzea beharrezkotzat jo da. Azalpen horietatik abiatuz, komunitatean sentituak diren beharrak kontuan hartuta, bizitza sozialean parte hartuz, errealitatea iraultzea lortzen dela planteatzen da. Modu honetan, ikasketa, zerbitzura lotuta egonda, bazterketa gainditu eta prozesu demokratizatzaile zein inklusibo bat martxan jartzeko indar-guneei egin zaie erreferentzia. Guzti honek, kapital soziala eratzen duenez, erresilentzia eta prosozialitateak prozesu honetan duten papera aztertuko da. Eremu desberdinetan aplikagarria dela erakusteko asmoarekin, aniztasun funtzionala, kulturartekotasuna eta harreman intergenerazionalak bezalako arloak lantzeko indar-guneak azaldu eta errealitatean oinarritutako esperientzien gaineko azalpenak ematen dira.

Metodologia honek inklusibitatea errealitate bilakatzen duela ulertuta, lan honek, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak gizarte eredu inklusibo bati eskaini diezaioken ekarpenak ezagutaraztera ematea, metodo hezitzaile honek iraultzeko duen ahalmena berrestea eta gizartearen demokratizazio prozesu bati ateak irekitzen dizkion bide bat dela frogatzea izango ditu helburu gisa.

Helburu hauek lortuta, eta hezkuntza profesionalentzako baliagarria izango den metodologia dela adituz, lan honetan, proposamen sozio-hezitzaile berri baten gaineko erreferentzi iturri garrantzitsuenak bildu eta etorkizun batean metodologia hau erabiltzeko beharrezkoa den lehen urratsa ematen da: Informazioaren analisia eta hausnarketa.

## 2. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren gaineko argibide kontzeptualak.

### 2.1. Definizioetatik abiatuz zenbait azalpen.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren kontzeptua argitzea beharrezkoa dela ulertuta, pedagogia aktiboen oinarriak hartuz, indarra hartzen dabilen metodologia honi zertzelada batzuk emango zaizkio.

Azterturiko informazioan ikus daitekeen bezala, zerbitzu bat eskaintzearen bitartez ikastetik haratago doan metodologia honek, lurralde eta erakunde desberdinen arabera, izendatzeko modu ezberdinak[1] ditu. Ikasketa + Zerbitzua; Ikasketa - Zerbitzua eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa dira proposamen sozio-hezitzaile hau izendatzeko eta definitzeko erabiltzen diren moduetako batzuk (Ikusi lehen eranskina). Elkartasuna sustatu nahi den balore nagusietako bat izanik, metodologia honen bitartez, komunitate bateko kide ezberdinen batasuna eta elkar ezagutza indartu nahi da. Asmo solidario hori berrestu nahirik, izendapenean (Hemendik aurrera, IZS) elkartasun hitza azpimarratu nahi da.

Lehen urrats gisa, komunitateari zerbitzu bat eskaintzearen bidez, zerbait eginez irakastea eta ikastea posible egiten duen metodoa dela azaldu beharko litzateke. Modu honetan, komunitateko partaideekin harremanetan jartzeaz batera, bertako beharren arabera egokitutako zerbitzu bat opatuz, prozesu guztian zehar irakaskuntza prozesu bat ahalbidetuz (Battle, 2013; Rubio, 2011; Uruñuela, 2011). Orainarte nagusitu diren pedagogia aktiboetan bezala, IZSk ikaslea bere ikasketa prozesuaren erdigunean kokatzen du, baina kasu honetan, zerbitzua ardatza izanik, ezagutzak errealitatean islatzeko eta aplikatzeko aukera emanez. Errealitatea iraultzea metodologia honen xede nagusia izanda, helburu hau lortzeko, ikasketa eta zerbitzua bezalako elementuak batera jardutea beharrezkoa da. Ikasketa esanguratsuak, curriculumarekin lotura duten ezagutzak bereganatzeko helburu pedagogikoa izango du. Bestalde, zerbitzuak, errealitatea aldaraztea posible egingo duen beharrezko elementuan bilakatuko da (Francisco & Moliner, 2010; Tapia, Elicegui y Hernáiz, 2007). Zehatzago esanda, proiektuen asmoa, ezagutzen garapenean (hezkuntzan duen eragina eta konpetentziak aztertzeko ikusi 2. eranskina) eta irakaskuntzarekin lotuta dago.

Ezagutza hauen indartzea bilatzeaz aparte, egunerokotasuneko eta komunitate bizitzarako baliagarriak diren gaitasunak ere kontuan hartuko ditu. Beraz, IZS erreminta bikoitza da: soziala eta hezitzailea (Batlle, 2013; Cruz, 2003). Ikasketa akademiko edota sistematizatuak eskaintzen diren zerbitzuaren kalitatea hobetuko duen bitartean, eskaintzen den

[1] CLAYSS (2010). Los mil nombres de una pedagogía difundida en todo el mundo [Diapositiva]. Buenos Aires, Argentina: CLAYSS. Disponible en http://www.slideshare.net/clayssdigital/clayss-as-nombres

zerbitzuak, ezagutzak areagotuko ditu. Fenomeno honi, Maria Nieves Tapiak (2009), “bertutedun biribila” deritzo. Kalitate akademikoa hobetzearekin batera, justizia soziala eta errealitatearen transformazioa lortuko da (Hernandez, 2009).

***1. Irudia: “Bertutedun biribila”.***




***Iturria: Tapia, (2009:46).***

Rosser Battle-ek (2011) esandakoa laburbilduz, eta bere hitzen garrantzia kontuan hartuz, IZS herritarren konpromiso soziala lortzearekin batera, eskola arrakasta ahalbidetzen duen metodologia aktiboa dela aipatzea beharrezkoa da. Bi elementu hauek biltzeaz gain, estrategia berriei irekita dagoela azpimarratu beharko litzateke. Metodologia honen sorburu nagusia behar soziala dela ohartaraziz, Puig eta Palop-ek IZS horrela definitzen dute:

> El aprendizaje-servicio es una propuesta educativa que combina procesos de aprendizaje y de servicio a la comunidad en un solo proyecto bien articulado en el que los participantes se forman al trabajar sobre necesidades reales del entorno con el objetivo de mejorarlo. (2006:61).

Behar baten gainean lan egiteak, komunitateari ekarpen bat burutzea suposatzen du. Horregatik, mota honetako esperientziek, komunitate bateko bizitza kalitatea hobetzeaz batera, hezkuntza formal eta ez formalean parte hartzeko edota txertatzeko aukerak areagotuko ditu (Tapia, 2010). Metodologia honek, esperientzia solidarioen bidez, herritarren garapen pertsonala bultzatzen du. Esperientzia edota zerbitzu komunitario hauetan parte-hartzearen ondorioz, protagonista sentitu eta komunitatea hobetzearekin batera, gaitasun eta balore ezberdinak bereganatuko dira (Mendia, 2007). Prozesu parte-hartzaile bat dela berresten duen zerbait, mota honetako ekintzek jarraitu beharreko faseak dira (Ikusi 3. eranskina).

IZSren abantaila edota indar-gune nagusietako bat prozesu guztian zehar hausnartzen eta ikasten dela da (Rubio, 2011). Betiere, kontzientziazio prozesu baten parte izanik, errealitatearen aurrean ahalik eta modu aproposenean jokatzeko helburua du (Páez y Puig 2013). Honen bitartez, aurretiko ezagutza, errealitatean gertatzen denarekin osatu, eta boterearen, pribilegioen zein desberdintasun sozialen gaineko eztabaida kritikoak garatuz. Hauei

esker, bidegabekeri sozialen sorburuaz eta konponbideaz hausnartzearekin batera, jendartean duten inpaktuaren eta aldaketa sozialaren gaineko gogoeta egingo da. Honek, ikuspegi iraultzaile batetik, parte-hartzaileen garapena eta konpromiso soziala indartzea eragingo du (Aramburuzabala, 2013). Hots, hausnarketa ahalbidetzen duten ekintzak indartu behar dira, beste batzuen artean, ikasleen aldizkariak, ikerketa lanak, aurkezpenak, irakurketa zuzenduak eta hausnarketa elektronikoak (Bringle, 1999).

## 2.2. Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren oinarri pedagogikoen ezaugarriak.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren ezaugarri guztiak biribilkatzen dituen definizio bat aukeratzea konplexua izanda, ezinezkoa da beharretatik abiatuz, herritarrak prozesu hezitzaile baten erdigunean jarri eta errealitatea iraultzea helburu duen asmo handiko metodologia honen indar-gune edota gako guztiak azaltzea. Hala ere, lan desberdinen (Puig, 2009; Puig y Palos, 2006) aipamen eta NYLC-ek ezarritako "kalitatezko estandarretan"[2] (Billig, 2008) oinarrituz, IZSren ezaugarrien gaineko, ondorengo bereizgarri edota oinarriak nabarmendu daitezke:

a. *Zerbitzu eta ikasketa esanguratsu bezain jarraitua da.* Lerro curricularrean ezarriak dauden ezagutzak kontuan hartu eta esperientziaren bitartez bereganatu diren konpetentzietatik abiatuz, ikasketa prozesu bat martxan jartzen du. Hausnarketak, esperientziari balioa aitortuko dion heinean, bizipenen gaineko emozioek kontzientzia izatea eragingo dute. Horrela, parte-hartzaile guztien errekonozimendua lortu eta egiten denari esanguragarritasuna emango zaio.

b. *Komunitatearentzako ona dena; herritarrentzako ona da (eta alderantziz).* Elkartasuna adieraziz behar bati aurre egiterakoan, harreman horietatik sorturiko onurak binoranzkoak dira. IZSk, irtenbide global bat lortzeko, eremu eta gai desberdinak jorratzeko aukera ematen du, beste batzuen artean: dimentsio etikoa, politikoa eta soziokulturala. Horrela, ikuspegi aniztasuna, iritzi desberdinak errespetatzen, estereotipoei aurre egiten eta besteen lanak onartzen ikasiz, herritarrak eta komunitatea iraultzea lortzen du.

c. *Pertsonak aldaketarako elementu protagonistak bilakatzen ditu.* Parte-hartzaileen protagonismo hau, proiektuaren etapa guztietan (Diagnosia, plangintza, burutzea, ebaluazioa eta sistematizazioa) zehar emango da. Hezitzailea, hausnarketa ahalbidetu,

[2] NYLC.*(2009).* Lift: Raising the Bar for Service-Learning Practice [Archivo de video]. Disponible en http://lift.nylc.org/

guztien erabakiak errespetatu eta jarrera eraikitzaile bat duen erreferente edota eredua izan beharko da. Modu honetan, ahotsa emanez, ideiak sortzera eta planteatzera animatzeaz gain, erabakiak hartzeko gaitasuna indartu eta gidaritzarako trebeziak landuko dira. Garapen soziala helburu duen proiektu bateko kide izateak, auto-estimua hobeago bat izatea eragingo du.

d. *Guztion komunitatea, guztion artean eraiki.* Mota honetako metodologia batek, bizitza publikoan parte-hartzeko aukera eskaintzen duen aldetik, modu indibidualean lortu ezin daitezkeen esperientziak bizitzeko aukerak eskainiko ditu. IZSk komunikazioa errazteaz gain, lankidetza bermatzea eta herritarren hitza errespetatzea posible egingo du. Hau da, agente, eragile edota zentro hezitzaileen arteko sare lan bat ahalbidetuz, erantzukizunak bereganatzen eta proiektu kolektiboetan inplikatzen ikasteko aukera da. Honek, guztion artean partekatua den komunitate eredu bat eraikitzea posible egingo du.

Premisa edota ezaugarri hauek azaldu eta definizio guztiek antzeko elementuan konpartitzen dituztela ondorioztatuta, Zerbikas-eko *Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakeleko gidan (*Rubio, 2008) azaltzen diren elementuetan oinarrituz, burututako irudi hau eskaintzen da:

***2.Irudia:"IZSaren elementuak".***




***Iturria: Berezko lanketa.***

## 2.3. IZSk sortzen dituen nahasmenak.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren metodologia azaltzerako orduan hainbat nahasmen sortzen dira. Kontuan izan behar da, planteamendu honek, antzekoak bezain osagarriak diren

elementu edota ekintza desberdinak barnebiltzen dituela. Arrazoi horregatik, IZS bere osotasunean aztertzeko, eta aintzakotzat eduki behar diren kontzeptuak ezagutzeko, beharrezkoa da Stanford-eko Unibertsitateak burutako koadranteen grafikoari so egitea.

Ondorengo irudian agertzen den bezala, grafiko hau bi ardatzez bereizten da: alde batetik, ardatz bertikala dago, zeinetan,  komunitateari eskaintzen zaion zerbitzuaren maila edota kalitatea aztertuko den. Honen arabera, goiko koadranteetan kokatzen diren ekintzak zerbitzu maila altu bat izango dute. Bestetik, esan, ardatz horizontala, ikasketa formalek garatu den zerbitzuarekin duten integrazio maila neurtzeko balio duela (Tedesco y Tapia, 2008).

***3.Irudia: "Stanford-eko koadranteen grafikoa".***




***Iturria: Service-learning 2000 Center, Stanford University, 1996 (*Autoreak moldatuta).***

Guztiak aipatzea ezinezkoa izanik, autore eta lan desberdinen (Cabrera, Donoso, Folgueiras y Luna, 2009; Cecchi, 2006; Martinez, 2013; Tapia, 2004; Tapia, 2004b; Tapia et al., 2007 Tapia, Hernán, Montes e Yaber, 2013**)** ikuspegitik Stanford-en koadrantea osatzen duten ekintza bakoitzaren bereizgarrien gaineko azalpen labur bat egitea garrantzitsua da:

a. *Praktika eta landa lanak.* Komunitate baten errealitatea izango dute ikergai nagusi gisa, baina inoiz ez dute modu zuzenean errealitatea transformatzeko helbururik izango.
b. *Sistematik kanpoko ekimen solidarioak.* Ikasketa formalarekin loturarik ez duten eta behar konkretu bati erantzuna ematera bideraturiko iniziatiba asistentzialistak dira.
c. *Ekimen solidario instituzionalak.* Sistematik kanpo sortzen diren ekintzetan ez bezala, ekintza mota hauek, hezkuntza komunitatearengandik onartuak izaten dira. Ondorioz, planifikazio bat izatearekin batera, jarraikortasun bat izango dute.
d. *Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa.* IZSko ekintzetan, beste ekintzetan ez bezala, curriculumeko ikasketak eta zerbitzuak bat eginez, ikasleei protagonismoa eman eta behar bati aurre egiteko helburua izango dute.

Hala ere, aztertu berri diren ekintza mota desberdinak ez dira inoiz gutxietsiak izan behar, bakoitzak, arazo edota irtenbide batzuk eskaintzen baitute. Azken batean, metodologia aldaketa bat suposatuko duen trantsizio (Ikusi 4. eranskina) baterako lehen urratsa izan

baitaitezke. Guzti hau adibide baten bitartez hobeto ikusten da: Sute bat izan den toki batean, basoa zuhaitz bat landatuz basoberritzen laguntzea ekintza solidario bat da. Aldiz, sutea jaso duen baso horrek sufritu dituen ondorioak ikertzea, landa lan bat izango litzateke. Bestalde, bi hauek uztartu eta egindako ikerketaren bitartez bereganatutako ezagutzak zein ateratako ondorioak bilduz, honen inguruko informazioa kanpaina bat sortzea IZSko ekintza bat da (Errealitatean garatu den ekintza baten azalpena ikusteko jo 5. Eranskinera).

Amaitzeko, esan, IZS gainontzeko ekintza motetatik bereizgarri egiten duen zerbait, zerbitzua eskaintzen duen pertsonak eta jasotzen duenak, maila berean onuratuak izateaz aparte, ikasketa eta zerbitzuari garrantzi bera ematen zaiela da. (Furco, 1996).

## 3. IZSaren izaerak bultzaturiko prozesu demokratizatzaile eta inklusiboa.

### 3.1.Gaur egungo beharrei aurre egiteko erronka.

Norbanako bakoitzak, geroz eta lehiakorragoa bilakatzen ari den hezkuntza sistemaren hausnarketa bat egingo balu, txikitatik hasi, eta bere eskola, ikastetxe edota hezkuntza zentroetan eskaintzen diren jakintzak, etekin ekonomiko bat ateratzearekin lotuta daudela ohartuko litzateke. Ikastea, enplegu duin bat izateko bide bakartzat jo da, modu honetan, indibiduoen garapen pertsonala bigarren maila batean geldituz. Hau da, gailentzen den hezkuntza eredu tradizionalean, ikasleak ezagutzen jasotzaile pasiboak dira. Honek, munduaren gaineko irakurketa kritiko bat egitea zailtzen du. Arrazoi horregatik, beharrezkoa izango da, ikasleak objektu izatetik subjektu aktibo izatera pasatzea (Freire, 1975). Zapaldua zen indibiduoak jasotzen zuen hezkuntza ereduaren gaineko irakurketa orain dela 44 urte egin zen arren, egungo eredua, ildo beretik jarraitzen duela baieztatu daiteke.

Gizartean nagusitzen diren balore indibidualista hauek hezkuntza sistemaren bitartez birsortzen dira. Horrela, pertsonen arteko harremanak hoztu, balore solidarioak galdu eta komunitatearen ikuspegia galbidera kondenatuz, gizartea, balore ezegonkorrak nagusitzen diren “modernitate isurkariaren” aroan bizi da. Egoera honen errudun nagusia, arazo eta beharren gainean dagoen elkartasun eta izaera falta da (Bauman, 2002). Honek, ongizate estatua sostengatuko duen egonkortasun faltarekin batera, ongizate eredua kolokan jartzea eragin du.

Elkartasuna eta hezkuntzak gizarte justuago eta berdintsuago bat eraikitzea ahalbidetzen duten heinean, bi hauen arteko elkarrekintzak, gaur egungo demokrazia sendotuko du. Eskola, inklusioan eta bakoitzaren bereizgarritasunen errekonozimenduan oinarritutako eremu bat izan behar dela kontuan hartutik, aukera berdintasuna posible bihurtzeko, parekidetasun eta

askatasunaren arteko oreka baten baitan heztea beharrezkoa da. Berdintasunak, gizartearen garapenena ahalbidetzen duen bitartean, askatasunak autonomiaren garapena sustatzen baitu (Rodriguez, 2008). Horrela, ezberdintasunak onartzeaz gain, hauek baloratu eta bakoitzaren gaitasunak eta abileziak aintzat hartu beharko liratezke.

Oro har hezkuntzak, eta bereziki eskolek behar duten demokratizazio prozesu horri aurre egiteko, botere hegemonikoaren aurka dauden proiektu kontrahegomonikoak gailendu behar dira. Proiektu hauek berdintasuna eta justizia izango dute printzipio nagusi gisa. Hots, herritar aktibo eta kritikoak sortuz, demokrazia eta bizimodu parte-hartzaileago bat eraikitzearekin batera, errealitatea iraultzea lortuko da. Errealitate berri horrek, hezkuntza komunitate bat gauzatzea suposatzen du. Non, bere jatorri, maila sozial edota errealitate konkretuagatik baztertuak izan diren pertsonen beharraren kontzientzia izango den (García, 2011). Hezkuntza komunitate hori sortu ahal izateko, funtsekoa izango da egoeraren irakurketa kritiko bat ahalbidetzen duen metodologi edota ereduak aplikatzea.

Egoera hau aintzakotzat hartuz, eta IZSren metodologiaren indar-guneek hutsune hauek estaltzen lagundu dezaketela jakinda, honen gaitasunetan zentratzea merezi du. Hala ere, honetan hasi aurretik, eta esandako guztia kontutan hartuz, IZS ideologia, egoera sozioekonomiko edota lurralde jakin batekin lotura duela eman dezakeen arren, garrantzitsua da azaltzea, metodologia honek ez duela eredu baten aurka egiten. Horren ordez, tokian tokiko berezitasunak kontuan hartuz, eredu horiek osatzen baititu. Edozein ideologiatik haratago doan metodologia dela adierazten duen zerbait, metodologia honen sustatzaile nagusienak, Hegoamerikako herrialdeekin batera, Holanda eta AEBak izan direla da (Battle, 2013).

## 3.2. Norbanakoaren esperientzian eta parte-hartzean oinarritutako hezkuntza.

Hezkuntzak eman beharreko pausuetako bat norbanako konprometitu eta parte-hartzaileak sortzea dela ulertuta, eta IZSk helburu honekin bat egiten duela jakinda, funtsezkoa da parte-hartzeaz hitz egitea. Aztergai dagoen metodologia honek, etorkizunean gerta daitezkeen arazoei aurre egiteko esanguratsuak diren esperientziak eta bizipenak sustatzen ditu, aurretiko ezagutzei garrantzia ematearekin batera, hauek garatzeko aukerak eskainiz. Halaber, bizitza osoan zehar gauza berriez jabetzeko eta hauek eraikitzeko gaitasuna landu, eta norbanakoetan eraginez, ingurunea transformatzen duen testuingurua eraldatu daitekeela irakasten du (Paredes, 2013).

Parte-hartzearen prozesua, elkartasunaren, konpromisoaren eta erantzukizunaren ikasketa prozesua da. Hiritartasunaren hezkuntzaren esentzia, alegia. Honek, adin tarte eta esperientzia desberdineko pertsonekin ezagutzak partekatzeko aukerak ematen ditu. Arrazoi horregatik, hezkuntza prozesua esanguratsua izan dadin, aniztasun horri zentzua, eta balorea eman behar zaio (Batlle, 2009). IZSk, egunerokotasunean baliagarriak diren gauza berriak esperimentatzeko aukera emanez, ikasleei beraien esperientzia, ikasten diharduten gertakariekin harremantzeko eta zuzeneko kontatu bat izateko aukera eskaintzen du. Horrela, ikasketa eta ezagutza eskolatik kanpo ateratzea lortuz (Puig, Batlle, Bosch y Palos, 2007). Era berean. injustizia egoeren aurrean, pertsona guztiek zeresana dutela erakutsi eta erreakzionatzera bultzatzen duen aldetik, eragile sozial desberdinekin harremanetan jartzeko aukera ematen du (Battle, 2011). Honek, kontzientziazio prozesu bat martxan jarriz, elkartasunaren garrantziaz jabetzera eta beste hainbat beharren aurrean erantzutea eragingo du.

Proiektuaren parte sentitzeak, posible egingo du herritarrek hezkuntza prozesu honetan jardutea eta hezkuntza komunitatera gerturatzea. Partaidetzak, prozesu dinamiko eta jarraitu bat izateaz gain, herritarrei, gizarteko gaiez arduratu eta arazoen gainean aktiboki jardutera behartzen die. IZSk herritar aktiboak bihurtzeko, testuinguruaren gaineko ezagutzak erabiltzen ditu, hezkuntza komunitatearen dialogoan barneratzearekin batera, erantzukizun eta interes definituak dituen harremantzeko modu bat sortuz. Honela, curriculumean eduki berriak sartu beharrean, dagoeneko eskaintzen diren ikasketak testuinguruan kokatu eta hauei zentsua ematen die (Luna, 2010). Arrazoi honengatik, eta garatzen diren harremanak horizontalak baldin badira, parte-hartzaileen esperientziek leku desberdinetan toki bat izango dute.

Prozesu gisa duen indarraz jabeturik, honen bitartez herritarren boterea eta erabakitzeko ahalmena eskuratu nahi dela azpimarratu beharko litzateke. Boterea suposatzen duen protagonismo honek, herritar eta komunitate desberdinek, instituzio publikoek hartzen dituzten erabaki garrantzitsuen gainean eragitea bilatuko du. Honek, administrazioek kudeatzen duten baliabide ekonomiko zein finantzarioak herritarren eskuetan jarriz, instituzio publikoen gobernagarritasuna eta funtzionamendua zilegitzat hartzea eginaraziko du (De Sarratud, 2010).

Herritar parte-hartzaileak izateko helburuarekin, IZSk, eragile sozialekin harremanetan egotearen bitartez, gaitasun sozialak bereganatzeaz batera, hauek burutzen dituzten ekintzen bitartez proiektu bat prestatzeko, jende aurrean hitz egiteko edota bizitza politikoan parte hartzeko beharrezkoak diren abileziak bereganatzen laguntzen du. Horrela, entitate sozialek, beraien sare soziala indartzean, informazioa eta boterea bereganatuko dute (Gonzalez, 2013). Prozesu parte-hartzaile bat, dirudien baino konplexuagoa da, elementu ezberdinak barnebiltzen baititu (Ikusi 6. Eranskina).

IZSren metodologia erabiltzen duten zentroek, modu batean, eraldatu egiten dira. Lunak (2010) azpimarratzen duenaren arabera, hiru aldaketa nagusi eragiten dituela nabarmendu daiteke. Lehenengoa, pertsonak batera trebatzeko ingurune demokratiko eta parte-hartzaile bat sortzeko aukera ematen duela da. Bigarrena, helburu kurrikular eta komunitateko beharrak kontuan hartuz, beste instituzio eta eragileekin elkarlanean jarduteko indarrak metatzen dituela da. Horrela, kapital soziala eta ehun soziala indartuz. Hirugarrenik, beharrei aurre egiteko beharrezkoa den agente hezitzaile formal eta ez formalen arteko erantzukizun eta konpromiso partekatua sustatzen duela aipatu beharko litzateke.

## 3.3. Hezkuntza komunitatearen sare zabal eta finko baten eraketa.

Garai honetan, hezkuntza eta ikastetxeen gainean dagoen eztabaidagaietako bat ikastetxeak komunitatera irekitzeko beharra dela esan daiteke. IZSren indar-gune nagusietako bat, erakunde eta jendarteko eragile desberdinekin elkarlanean aritzeko aukera ematen duela da. Entitate sozialak herritartasuna sortzeko eskolak diren aldetik, IZS ohiko esku-hartze tresna gisa erabili beharko lukete, ez soilik, eragile eta agente desberdinen arteko kohesioa ahalbidetzen dutelako, baizik eta entitateen izaerarekin bat datozelako (Batlle, 2010). Bestalde, instituzio desberdinak ezagutzeko aukera ematerakoan, hezkuntzaren kontzepzio aberasgarri eta parte-hartzaileago bat bultzatzen du (Martinez,2007).

Orokorrean, nahiz eta mota honetako proiektuak begi onez ikusi, ezagutzak elkartrukatzea nahiko konplexua bilakatzen da. Hau kontuan hartuz, eta sare komunitario hori sortzeko, IZSk sustatzen duten agente hezitzaileen artean, informazioaren elkartrukatzea, bakoitzaren lanaren errekonozimendua, komunitateko kideen (ikasle, senide, langile..) arteko sustapena eta proiektuarekin harremana duten ekintzak indartu beharko liratezke (Battle, 2010b). Sustatu nahi den iraultza kolektiboari balio erantsi bat emanez, sare lanak, proiektu edota prozesuei ikusgarritasuna eman eta hauek hedatuko ditu (López, 2011). Dena den, proposamen hezitzaile honek sare zabal eta finko bat eratzeko hiru gako dituela ulertzen da:

- Aldaketarako elementu diren pertsonekin eragiteko, elkar ezagutzeko eta parte-hartzeko aukerak biderkatzen ditu.
- Entitateei ikastetxeek egin dezaketena beraien interesekoa dela erakusten die. Modu honetan, beraien ekintzetan parte hartzeko aukera eskainiz.
- Pertsonen arteko harremanei garrantzia emateak, sare lana indartuko du.

Komunitate eta ikastetxeen arteko aliantza edota sarearen indartze prozesua ahalbidetuko duen harreman jarraituak, komunikazio iraunkor eta ireki bat izatea eskatzen du. IZSko metodologiari esker, sarea eratu ahal izateko interakzioa eta partekaturiko ikuspegiaren maila igotzen da. Elkar ezagutza eta talde-lana garatzea suposatzen duen prozesu honetan aurrera egin ahala, etapa ezberdinak indartuko dira (Abravanel, 2003). Jarraian eskuragai dagoen irudian sarearen egonkortze prozesuan igaro beharreko etapak ageri dira:

***4.Irudia: "The partnership continuum"***




***Iturria: Abravanel, (2003:11).***

Hala ere, sare finko hori eratzeko ez da nahikoa izango gako hauek azaldu eta IZSren indar-guneak plazaratzearekin. Koordinazio lan hau dirudien baino konplexuago dela jakinda, azpimarratu beharra dago, metodologia honen izaeran, zentro hezitzaileak ingurune sozialarekin (auzo, entitate sozial, ikastetxe …) harremanetan jartzeko dohaina dagoela. Honek, erantzun global bat eskatzen duten beharrei aurre egitea eta bizimodu kolektiboa hobetzeko aukera emango du, betiere, bere esku-hartze eremutik irteten badira. Talde lan hau ahalik eta modu eraginkorrenean sustatzeko eta guztien lankidetza bermatzeko, agente hezitzaile bakoitzaren rolak ondo definituak egotea beharrezkoa izango da. Rolak modu justu batean banatzeak, kohesioa ahalbidetuko du (Francisco, Nos y Moliner, 2011). Egoera hau indartuko duen zerbait, parte-hartzaile bakoitza bere ingurunean aditua dela ulertzea da.

Lurraldearekin konprometitua dagoen sare sozial bat eratzeaz gain, honek sustatuko dituen ekintzek zentsua izan dezaten, komunitatearekin, komunitatearentzat eta komunitatetik egin beharko liratezke. Halaber, entitate sozialak zerbitzuak eskaintzen dituzten agenteak direla ulertuta, eta askotan, arrazoi desberdinengatik, hauek aurrera ateratzeko zailtasunak dituztela

kontuan harturik, IZSk eginbehar hau ikastetxe bateko ikasleekin gauzatu daitekeela aditzen du (Puig, Gijón, Martín y Rubio, 2011).

Nahiz eta sare horren eraketan ikastetxeen paperaren gaineko aipamenak egin, kontuan izan behar da, metodologia hau hezkuntza formalaren maila desberdinetan aplikatzeaz gain, hezkuntza ez formalean (Heldu edota gazteei zuzendutako gizarte zibileko erakundeetan adibidez) ere baliagarria dela (Tapia, 2006). Bi hezkuntza eredu hauetan aplikagarria izatearen arrazoi nagusia, ikasitakoari erabilgarritasuna emateaz batera, hezkuntza integral bat eskaintzen duela da. Modu honetan, helburu pedagogikoak hobetzea lortuko du (Novella, 2013).

Hezkuntza herritarrei gerturatzeko prozesu honetan, eragile desberdinen elkarlana ahalbidetuko duten zenbait elementu daude. Orokorrean, hezkuntza formala eta komunitatearen arteko harremana erraztuz, pertsona ezberdinekin harremandu eta herritarren arteko kohesio edota indar metaketari ateak zabaltzen dizkiola aipatu beharko litzateke. Halaber, giza baloreak lantzen diren heinean, konpromisoa hedatzen da, modu honetan, herritarren inplikazioa sustatuz eta ikasketa esanguratsu bat eskainiz. Prozesu demokratiko bat suposatzen duen honek, ordezkarien gardentasun, zilegitasun eta erantzukizunerako mesedegarria izango litzateke (Malacrida, 2012). Guzti honetaz kontziente izateak, sare bat eraikitzera gonbidatzen du.

## 4 . Jabekuntza eta kapital sozial komunitarioa bazterketari aurre egiteko.

### 4.1. Giza kohesioa ondare sozial gisa.

Eskubideen galerarekin batera, kohesioa desagertu eta bazterketa areagotu den gizarte honetan, jendartean zehar finkoagoak ziren baloreak berreskuratzeko asmoarekin, jabekuntza ahalbidetuko duten tresnak eskaini behar dira. Kasu honetan, kapital soziala eta jabekuntza hertsiki loturik dauden gaiak direla ulertzen da. Lan honetako aztergaia IZS izanik, aipatu, metodologia honek bazterketak sortzen dituen oztopoak gainditu eta sare lana indartzeaz gain, herritarren kohesioa posible egiten duela. Azken hau lortzeko gakoa, aldaketa posible egiten duen herritarren arteko konfiantza sustatzen duela da (Batlle, 2011).

Kapital soziala zer den sumatzea erraza suerta daitekeen arren, honen gaineko definizio bat burutzea konplexua bilakatzen da. Orokorrean, harreman pertsonalak, arau, sare eta antolakunde desberdinez osaturiko multzoak osatzen duen zerbait dela uler daiteke. Ildo honetatik, Durston-ek (1999) ongizate komuna helburu duen instituzionalizazio prozesu soziala dela nabarmenduz, elkarrekikotasuna komunitateko kide ezberdinetara hedatu beharko

litzatekeela adierazten du. Honetarako, partaidetza, harreman instituzional formal eta informaletara zabaldu beharko da. Honetaz gain, kapital soziala, balore batzuez osatuta dagoela eta hauek indartzen dituen elementu bat dela esan beharko litzateke. Besteak beste, elkartasuna, errespetua, talde izaera eta enpatia bezalako baloreak nagusitzen direlarik.

Bestalde, IZS inklusioa ahalbidetzen duen kapital sozial gisa ulerturik, eta hezkuntza ulertzeko eran zein komunitatearen zentsuan sortzen dituen aldaketaz jabetuta, jendartearen ondare kulturalean ere eragina duela esan beharrik ez dago. Bernardo Kliksberg-en (1999:90) hitzak hartuz, *"La cultura cruza todas las dimensiones del capital social de una sociedad. La cultura subyace los componentes básicos considerados capital social, como la confianza, el comportamiento cívico, el grado de asociatividad"*. Hau da, IZSren kasuan gertatzen den bezala, kultura sendotzean kapital sozialaren indartzea emango dela azpimarratu nahi da.

Jabekuntzaren definizioetan sartu gabe, modu labur batean, boterea bereganatzean datzala esan daiteke. Prozesu hau bizitzaren edozein momentutan garatu daitekeenaren iritzikoa izanda, kapital soziala, sare lana, komunitatearen elkarbizitza eta kohesioa sustatzerakoan boterea eskuratzen dela argi utzi behar da. Arinago ikusi bezala, aipatutakoak bat egiten du IZSk bultzatzen duen prozesu demokratizatzaile eta inklusiboarekin. Mendiak (2007) adierazten duen bezala, ahaztuta egon diren herritar askori, duintasuna berreskuratzeko aukera emateaz batera, tradizionalki baztertuak egon diren eta esku-hartzea jaso duten pertsonenganako ikuspegi estigmatizatzailea eta estigmaizatua gainditzea eragiten du. Horrela, pertsonen garrantzia berretsiz eta aktibo sozial batean bilakatuz, ondare soziala handituko da.

## 4.2. Erresilentzia eta prosozialitatea aldaketarako motore.

Gizartea eraldatzeko aktibo nagusia pertsonak direla behin baino gehiagotan entzutearen ondorioz, parte-hartzeak duen garrantziaz kontzientzia hedatu dela esan daiteke. Bestalde, pertsona askoren artean, eragitea suposatzen duen urrats hori ematea nahiko konplexua bilakatzen da. Honek, IZSn gertatzen den bezala, beharren identifikazioarekin lotura zuzena dauka. Azken finean, gizartea iraultzeko edota transformatzeko beharra antzemateak, eragiteko aukera eta espazioak irekitzen baititu.

IZSk, ikuspegi edota jarrera asistentzialistetatik aldenduz, gizarte justuago eta solidarioago baten eraikuntzan pertsona guztiak parte har dezaketela ulertzen du (Gijon, 2011). Bizimoduaren gaineko erabakiak hartzeko eta protagonismoa sentiarazteko, karitatezko jarrerengandik urruntzea beharrezkoa izango da. Hau kontuan hartuz, IZS zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen inklusioa errazten duten bi elementu aipatu beharko liratezke:

a. *Altruismotik haratago, prosozialitatearen pedagogia da.* Hezkuntza, gizarte eta eragile sozialen bitartez, egoismo eta altruismoaren arteko oreka bat mantendu beharra dago. Azken finean, berekoikeriaz jokatuz gero, jarrera horiek birsortzen baitira (Puig, 2011). Altrusimoa, ezer ez jasotzearen truke eskaintzen den laguntza gisa ezagutzen da. IZSk aldiz, altruismoa baino osoagoak diren jarrera prosozialak aztertzera behartzen du.

Jarrera altruistak, karitatezko ekintzak izan ohi dira, eta hauek pertsonen arteko desberdintasun bat onartzeaz batera, injustizia egoera bat gaitzestea suposatzen dute. IZS behar bat duten pertsonenganako enpatia eta gertutasuna adierazterakoan, elkarrekikotasun printzipioan oinarrituko da. Honek, partekatzeari emateari baino garrantzi handiagoa eskaintzea suposatzen du (Tapia, 2004). Jarrera prosozialek, jarraikortasunez, inguruko pertsonak ezagutzea eta duintasuna erakutsiz, pertsonenganako estima adieraztera eramaten dute (Palau del Pulgar, 2006). Prosozialitateak altruismoa osatzen duen zerbait dela ikusteko, berebiziko garrantzia dauka Robert Roche-ren hitzak aztertzea:

> Los comportamientos prosociales enriquecen las nociones esenciales del altruismo tradicional a condición de que, susceptible de un análisis científico, se les añada una dimensión más plenamente social y colectiva y una motivación realista que, aceptando recompensas interiores o morales, esté centrada en el "otro" y se evite apropiaciones exclusivas ideológicas o religiosas, lo cual permite precisamente el diálogo y la reciprocidad entre todos los sistemas humanos y sociales. (1995:16).

Honetan aztergai den IZSk jarrera prosozialak indartzearen arrazoi nagusia, pertsonekin harremantzeko beharra izateaz aparte, besteen esperientziek, norberaren garapena eta ikasketa indartzen dutela ikustarazteko ahalmena duela da (Eberly y Roche, 2002; Roche, 1997). Honek, jarrera prosozialak biderkatzea eragingo du. Kutsadura, honen eragileetako bat, goraipamenak eta onespena dira (Marín, 2010). Hezkuntza prosozialak, nortasun komunitarioa bereganatzeaz gain, gizarte kohesioa, komunitatearen elkar bizitza eta garapen etiko bat bultzatuko ditu. Halaber, gaur egungo hutsune emozionala betez, gaitasun emozionalak indartzea eragingo du (Blanco, 2007).

b. *Erresilentzia gaitasuna lantzeko metodologia da.* Gaur egungo situazioak sorturiko desegonkortasun egoerak, herritarrak zaurgarriagoak bilakatzea eta ondorioz egoera zailei aurre egin behar izatea eragin du. Arrazoi horregatik, berebiziko garrantzia dauka, egoera konplexu desberdinak gainditzeko gaitasunak garatzea. Erresilentzia, harreman

emozional, kognitibo eta soziokulturalak barnebiltzen dituen prozesu bat izanda, ez da egunetik gabera eraikiko (Balbi, Chamorro y Marquez, 2007)[3].

Melillo-ren (2004) arabera, autoestimua, moraltasuna, humorea, sormena, introspekzioa, harremantzeko, iniziatibak hartzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko gaitasuna, erresilentzia haztea eragingo duten oinarri nagusiak dira. Honen arabera, autoestimua indartzeak gainontzeko gaitasunak garatzea ahalbidetzen du. Era berean, pentsamendu kritikoa sustatzeak, aurrekoak sendotuko dituela deritzo. Tapiaren (2004) bizipenak kontuan hartuz, IZSk gaitasun edo oinarri hauen indarpenenean eragiten duela ageriko da. Hala ere, bere esanetan, pesimismoari aurre egiteko erabilgarria izan arren, ezin daiteke zientifikoki frogatu metodologia honek humorea hobetzen duenik.

IZSren berezko ezaugarriek, posible egiten dute erresilentzia garatzeko gaitasun batzuk indartzea. Hauek sendotzerakoan, beste batzuen artean, onura hauek sortzen direla nabarmendu daiteke (Aguirre, Andrade y Zulueta, 2005; Tapia, 2001):

- Estereotipoei aurre eginez, rol eta identitate berriak bereganatzea.
- Erantzukizun soziala eta autonomia areagotuz, arazoei aurre egiteko konponbide berriak sortzeko gaitasuna.
- Elkarbizitza talde zein instituzio bateko kide sentitzea.

Furcoren (2004) arabera, IZSren eraginaren inpaktua aztertzea oso zaila izanik, ezin daiteke ziurtatu IZSk emaitza akademikoak hobetuko dituenik. Hala ere, nahiz eta harreman zuzen hau ez ezarri, bi elementu hauen artean dauden eta erresilentzia zein prosozialitatea bezalako gaitasunak indartuko duten bitarteko eragileak (autoestimua, jabekuntza, motibazioa eta konpromisoa) sendotzen dituela deritzo.

## 4.3. Bazterketaren ikusezintasunaren aurka parte-hartzearen giltzarria.

IZSko ekintzetan parte-hartzeak, pertsonaren auto-estimuan eragin zuzena izateaz batera, etorkizunari modu baikor batean begiratzeko aukera eskaintzen du. Honen ondorioz, baztertua sentitzen den pertsona, ikusgarri sentitzeko eta egoera aldatzeko gai dela ikustaraziko da. Inklusioa prozesu bat dela ulerturik, eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonen arazo guztietara iritsiko ez dela jakinda, IZSk prozesu honetan zeresan handia duela argitu beharko

[3] Uruguaiko IZSko proiektuetan parte hartu duten parte-hartzaileen testigantzetan oinarrituz, erresilentziari dagokionez, metodologia honek indartzen dituen alderdiak ikuskatzea gomendatzen da: 22-23 orrildeak.

litzateke. Pertsona batzuk zaurgarriak izatea eragiten duten arrazoien gainean hausnartu ondoren, metodologia honek eremu edota ezaugarri horiek dituzten pertsonen bizimodua hobetzea eragin diezaieketen arrazoiak azalduko dira. Hauek egia direla frogatzeko, errealitatean aurrera eramandako esperientzia batzuk aurkeztea erabaki da (Ikusi 7. eranskina):

a. *Aniztasun funtzionala duten pertsonak.* Protagonismoa, erabakiak hartzeko gaitasuna eta errealitatea iraultzeko aukeraz hitz egiten den arren, hauek lortzeko desioek, talka egiten dute aniztasun funtzionala duten pertsonek duten uztezko gaitasun faltak sortzen duen beldurraren aurka. Historian zehar gailendu den pentsamolde horren ondorioz, bizitzeko modu desberdin bat duten pertsona hauek zerbitzu kontsumitzaile hutsean bilakatu dira. Halaber, pertsona hauei ez zaie eremu publikoan parte-hartzeko eta beraien aniztasunaz gozatzeko aukerarik eman. Honek, aniztasun funtzionala eremu pribatuko "arazotzat" jotzea eragin du. Hau kontuan hartuz, IZSko metodologiak kolektibo honi, bereziki, ondorengo ekarpen hauek egiten dizkiola aditzen da:

- Aktibismo politikoa lortzeko bidea da. Balaguer-en (2012) arabera, desberdintasun soziala murrizteko mugimendu sozialen presioa behar da.
- Burujabetza eta bizimodu independente bat lortzeko lehen urratsa. IZSk errealitatea transformatzetik haratago, ezagutza sare burujabe edota askatzaileak sortzeko parada da. Honek, aukera berdintasuna, bizimoduaren gaineko erantzukizuna eta kontrola berreskuratzea suposatzen du (Centeno, 2009).
- Autodeterminazioa eta ekintzen gaineko kontrola bereganatzea. IZSk, gaitasun sozial eta komunikatiboak indartzeaz batera, erabakitzeko aukera gutxi izan dituzten pertsonei bere bizimoduaren gaineko erabakiak hartzeko aukera ematen die (Geva y Fis, 2012). Aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak hobeto ezagutzen dituztenak, aniztasun funtzionala dutenak dira. Horregatik, beraien bizimoduaren gaineko erabakiak hartu beharko lituzkete (Arnau, 2003).

Metodologia honen erabilgarritasuna azalduta, garrantzitsua da hauek indartzen duten adibide bati erreparatzea. Oraingoan, "Down lleida" fundazioak aurrera eramandako "Nous Voluntaris"[4] (Boluntario berriak) deituriko esperientziaren analisi azkar bat egingo da. Proiektu honek, boluntariotzaren ikusmira aldatzeko helburua izateaz gain, arinago aipatu bezala, historikoki zerbitzu kontsumitzaile izan diren pertsonak, zerbitzu bat eskaintzen duten pertsonak izatera pasatzeko xedea dauka.

[4] Balio handiko esperientzi honen inguruko informazio gehiago izateko: http://www.aprenentatgeservei.org/index.php?cm=06&idC=828

Horretarako, Down sindromea eta beste aniztasun funtzional mota bat duten pertsonak, beste erakunde, elkarte edota eragileekin ekintzak burutzeko aukera eskaintzen du.

Hau burutzeko, hiru fase bereizi ziren: lehenengo eta behin, parte-hartzaileei, informazioa eta formazioa eskaini zitzaien. Bigarrenik, hezkuntza emozionala eta oinarrizko trebakuntzak garatu ziren, eta azkenik, akonpainamendu eta boluntariotza ekintzak aurrera eramateko urratsa eman zuten. Honen gaineko ebaluazio eta jarraipen bat egitea beharrezkotzat jo zen.

b. *Kulturartekotasuna.* Desberdintasun kulturalek pertsonen arteko elkar ezagutza, eta ondorioz inklusioa zailtzen dutela ulertuz, beharrezkoa da komunitatea aberastuko dituzten espazio komunak eskaintzea. IZSk arlo desberdinetan sailkatu daitezken konpetentziak indartzen dituela jakinda, kasu honetan, Ferran eta Guinot-ek (2012) egindako sailkapenean oinarrituta, kultuartekotasuna indartzen duten konpetentzia hauek nabarmendu daitezke:

- Pertsonak ez dira inoiz arrazoi sozial edo kulturalengatik baztertuak izango.
- Aniztasun kultural eta soziala gizarteko harremanen interakzio gisa ikertzen du.
- Beste kultura edota egoera sozialeko pertsonen arteko harremanak aberasketa pertsonal gisa ulertzen ditu.

Hau ikusita, konpetentzia hauek lantzen diren proiektu baten inguruko aipamena egitea komeni da. “Peinas” deituriko proiektu baten bitartez, pedagogiako ikasle batzuk, Galizian kokatzen diren eta Inmigrazio zein interkulturalitatearen alde lan egiten duten erakunde desberdinekin batera, zerbitzu ezberdinak eskainiz, hainbat esperientzia burutu zituzten. Atzerritarren errealitatea ezagutu eta klasean ikasitakoa erakundeekin gauzatutako zerbitzuetan aplikatuz, testuingurua aztertu, eragile sozialen garrantziaz jabetu eta hauetaz ikasteko aukera izan zuten (Sotelino, 2013). Zerbitzu ezberdinak burutzen zituen proiektu hau 2010-2011 eta 2011-2012 urteetan gauzatu zen. Egindako ekintza motetatik bat aipatzearren, esan, Santiago de Compostelan lan egiten duen “Cruz de Vermella” erakundearekin batera, arlo zehatz batzuen inguruko tailerrak eskainiz, gai sozial eta laboralen inguruko aholkularitza zerbitzu bat burutu zutela.

c. *Harreman intergenerazionalak.* Hirugarren adineko pertsonen esperientzia eta bizipenek, ezagutza iturri edota ondare garrantzitsu bat izatea eragiten die. Hala ere, gaur egun, pertsona hauen pentsaera zaharkituta dagoela aditzearen ondorioz, baztertuak

eta aldenduak izaten dira. Egoera honek, beraien ezagutza eta iritzia ukatuak izatea eragin du. Horregatik, IZSk elkar ezagutzeko espazioak sortzeaz aparte, jarraian agertzen diren bi arrazoiengandik beharrezkoa dela konprenitzen da:

- Harreman eta balore solidarioak sustatzen ditu. Ezagutzak bereganatu eta errespetua, enpatia, elkartasuna bezalako baloreak landuz kontzientzia soziala indartzea eragingo du (Gil y Marti, 2012).
- Zahartze aktibo eta parte-hartzaile bat izatea ahalbidetzen du. Hau gaur egungo erronketako bat izanik, Zamarronek (2013) adierazten duen bezala, zahartzeko modu desberdinak daude, ez da soilik adin kontua. Hau horrela dela ulertuz, IZSk, bizitza sozialean parte hartuz zahartzeko aukera eskaintzen du.

Indargune hauek ikusita eta adibide batek gauza asko argitu ditzakezeela jakinda, “Con ojos de mayor pero mirada joven” deituriko ekintza azalduz, esandako guztia posiblea dela erakutsiko da. Portugaleteko (Bizkaia) Santa Maria ikastetxeko batxilergoko ikasle talde batek “Aspaldiko” erresidentziako nagusiekin, esperientziak elkartrukatzeko proiektu intergenerazional bat burutu zuten. Ekimen hau, akonpainamendu ekintza gisa definitu daiteke. Proiektu honen bitartez, gazteek inguruko toki eta espazioak ezagutzen zituztela kontuan hartuz, nagusiei testuinguru horietara hurbiltzeko aukera eman zitzaien. Horrela, pertsona hauek erresidentziatik atera eta testuinguruak sufritu izan dituen aldaketen gaineko testigantzak elkartrukatzeaz aparte, ezagutza kultural, sozial edota historikoak uztartu zituzten.

Azalduriko ekintzek erakusten duten bezala, begi-bistakoa da, topikoak alde batera utzita, edozein pertsonak errealitatea iraultzen lagun dezakeela. Egoera hau kontutan hartuz, jakintzak elkartrukatzea posible egiten duten bide berriak bilatzea funtsezkoa da.

# 5. Ondorioak.

Behin lana amaituta, prozesu guztian zehar jasotako guztia plazaratzeko momentua da. Gradu Amaierako Lanaren ibilbidean zehar egindakoak gauza desberdinen gainean pentsaraztea eragiten duela jakinda, arlo desberdinen gaineko ondorioak plazaratuko dira.

## 5.1. IZS eta bere izaera inklusiboa.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa zerbaitegatik eraginkorra baldin bada, pertsona guztiak eskaintzeko zerbait dutela ulertu eta ekarpen edota esperientzia hauek bilduz, ingurunea aldatzen duelako da. Izan ere, inklusioa eta elkartasuna ardatzat izanik, herritarrak bizitza sozial zein publikoan parte hartzeaz batera, honetaz ikasteko aukera eskaintzen baitu. Metodologia honek egiten duen ekarpen nagusia, justizia soziala lortzeko helburuarekin, pertsonengan ematen den rol aldaketa izateaz gain, hezkuntza integral bat garatzea posible eginez, ezagutzen, egiten, izaten, elkarbizitzen eta ekiten ikasteko trebetasunak lantzen direla da (Rubio, 2008).

Balore sozial batzuen baitan, jabekuntza prozesu bat martxan jartzea eragingo du, baztertuak diren pertsonen inklusioa posible eginez. Bazterketak, isolamenduaz gain, norbera eta besteekiko segurtasun eza eragiten du. Hau horrela izanik, IZS auto-konfiantza eta gainontzeko pertsonengan itxaropena izateko esperientzia positiboak lantzen laguntzen duela azpimarratu daiteke. Norberak bizitako esperientzia positiboek eta babes soziala sentiaraztea, aukera emango dute etorkizun batean modu autonomoago batean jarduteko (Mendia y Moreno, 2010). IZSk bilatzen duen autonomiaren bitartez, planteatzen diren helburu eta eginbeharrak borondate eta indar gehiagorekin aurrera eramango dira.

Egindako azterketak, argi utzi nahi du proposamen hezitzaile bat izatetik haratago, ikuspegi inklusibo batetik, errealitatea ulertzeko eta iraultzeko modu bat dela. Zeinek, herritarrei protagonismoa emanez, beraien bizimodua balioetsi eta duintasunez bizitzeko eskubideaz gozatzeko aukera ematen dien. Guzti hau lortzeko gakoa komunitate izaera berreskuratzea izango da.

## 5.2. Gizarte hezkuntzari eta hezkuntza inklusiboari egindako ekarpenak.

Gizarte Hezkuntzaren eremuan kokatuz, gomendagarria da IZSk lanbide honi utzi diezaiokeen legatuaz gogoeta egitea. Gizarte Hezkuntza behar bat duten pertsonei erantzun bat ematera eta hauei zerbitzu bat eskaintzen dien ogibidea dela uler daitekeen arren, ideia honen arriskuaz jabetzea komeni da. Azken batean, pertsonen arteko harremana bezero erlazio gisa soilik ulertzen baldin bada, dependentzia erlazio bat sor baitaiteke.

Eman ditzaken fruitu guztiak biltzea ezinezkoa izanda, Begoña Martinez-en (2013) hitzen balioa kontutan hartuta, IZSk, hezkuntza inklusiboa errealitate bihurtzeko hiru gako eskaintzen dituela nabarmendu daiteke. Lehenengoa, parte-hartzea, protagonismoa eta proiektu bateko kide sentitzea ahalbidetzen duela da. Bigarrenik, bazterketari aurre egiteko beharrezkoak diren eremuak jorratuz, pertsonen bizi kalitatea hobetzea posible egiten duela aipatu beharko litzateke. Azkenengoz, eragile sozial eta komunitatearen arteko harremana indartuz, hauen sinesgarritasunaren berreskurapenean ekarpen ugari egiten dituela ziurtatu daiteke. Honen giltza, balore demokratikoak sustatzeaz batera, komunitatean, komunitatearekin eta komunitatearentzako lan egingo dela izango da.

Hezkuntza alorrean, egin behar diren gauzez asko hausnartu eta idatzi da. Aztertu berri den metodologia honen sustapenean lan egiten duten pertsonek zerbait argi izan badute, egin behar dena pentsatzetik, gauzak egitera jauzi egin behar dela izan da. Halaber, printzipio solidario eta demokratikoetan oinarrituz, planteamendu hezitzaile honek, duintasuna, parte-hartzea, erantzukizun soziala eta komunitateak sentitzen dituen beharretatik abiatuz, egoera larrienak ikasteko eta garatzeko aukera batetan bilaka daitezela erakusten du.

## 5.3. Ezarritako helburuak eta bereganaturiko konpetentziak.

Nahiz eta hasiera batean inguruko eragile desberdinekin (Durangoko udaletxea; Helduentzako Hezkuntza Ikastetxea; Kurutziaga ikastola; Udal egoitzako teknikari desberdinak) harreman intergenerazionalak sustatzea helburu zuen proiektu bat partekatzeko desioa izan, gaiaren inguruan beharrezkoa zen difusio lan bat egiteko izandako ezjakintasunak eta beharrezkoa zen babes bat ez jasotzeak, ezinezkoa egin zuten hau aurrera eramatea. Neketsua bilakatu zen prozesu horretatik ateratako ondorio nagusia, gauzak ez direla dirudien bezain errazak eta norberarentzat bideragarria dena, beste batzuentzat ezinezkoa dela izan da.

Hasieran planteaturiko proposamen hori aldatzerakoan, metodologia honen gaineko informazioa jaso eta IZSren izaera inklusiboa azpimarratuz, jendarte eraldaketan duen eragina aztertzea bilatzen zen. Bereziki, metodologia honek, herritarren konpromiso batetik abiatuz, jabekuntza prozesu bat aurrera eramateko aukera zela ulertzen zelako. Helburu nagusi hau bete dela ulertzeaz gain, berrikuspen bibliografiko sakon bat egin eta baliagarria den proposamen hezitzaile baten gaineko informazioa aztertuz, honen gaineko informazioa helaraztea lortu da.

Bestalde, helburu hauek lortzeko bidean, Gradu Amaierako Lana egiterakoan planteatzen ziren konpetentzia desberdinak erdietsi dira. Lehenengo eta behin, IZS aztertzen duen lan honek, gaur egungo errealitatearen gaineko analisi bat egitera behartzeaz gain,

hezkuntzak dituen erronken gainean hausnartzera bultzatzen duela aipatu beharko litzateke. Hausnarketa horretatik, metodologia batek egin dezakeen ekarpenen gaineko lanketa bat burutu da. Bigarrenik, ez litzateke ahaztu behar, ekarpen horiek egin ahal izateko, beharrezkoa izan dela IZSren gainean dagoen bibliografiaren berrikuspen bat. Honek, informazioa kudeatzea eta ideia desberdinak uztartzea eskatu izan du. Aldi berean, ikerketarako abilezia desberdinak (planifikatzeko, sintetizatzeko eta analizatzeko gaitasunak) indartzea eragin dituela baiezta daiteke. Azkenik, esan, gai baten gaineko azterketa hausnartzaile eta kritiko bat burutu dela. Modu honetan, arlo baten gainean argudiatzeko eta eztabaidatzeko oinarriak landuz, metodologia batek gizarte hezitzaileei egin diezaiokeen ekarpenez jabetuz.

## 5.4. Prospekzioa.

Lana amaitu ondoren, egindako guztiak izan dezakeen ibilbideaz hausnartzea komeni da. Hausnarketa hau eginda, garrantzi eta baliagarritasun handia izan ditzaketen ondorengo hiru ikerketak egitea proposatzen da:

a. *IZSk jabekuntza prozesuan duen eraginen gaineko ikerketa.* IZSk herritarrak jabetzeko eta gizarteratzeko dituen gakoak azalduta, metodologia hau erabili duten pertsonen esperientziak eta bizipenak bilduko dituen ikerketa batek lan hau osatuko lukeela ulertzen da. Modu honetan, profesional zein, parte-hartzaileen bizipenak kontuan hartuz, jabetzea eragiten duten alderdiak frogatuko liratezke.

*b.* *IZSren nahitaezkotasunaren inguruko lan edota analisia.* Bere garaian Argentinan egin zen bezala, metodologia hau derrigorrezkoa edota borondatezkoa izan beharko litzatekeen hausnartzea interesgarria dela ondorioztatzen da. Gogoeta honek, metodologia bera asko aberastu dezake.

*c.* *IZSk hezkuntza eremu desberdinetan sortzen dituen aldaketen gaineko lana.* Nahiz eta metodologia hau hezkuntza eremu desberdinetan aplikagarria izan, proiektu gehienak hezkuntza formalean zentratzen dira. Horregatik, IZSk hezkuntza integral bat ahalbidetzen duela ulertuz, hezkuntza eredu ezberdinetan (Formal eta ez formalean) sor ditzaken aldaketez eta ekarpenez ikertzeko beharra dago.

## 6. Bibliografia.


- Abravanel, S. (2003). *Building Community Through Service-Learning: The Role of the Community*. Denver, Estados Unidos: Education Commission of the States. Disponible en http://www.duq.edu/Documents/service-learning/_pdf/Role_of_Communty_Partner.pdf
- Aguirre, C., Andrade, M. y Zulueta, S. (2005). *Aprendizaje Servicio. Manual para docentes UC*. Santiago, Chile: Pontificia Universidad Católica de Chile.
- Aramburuzabala, P. (2013). Aprendizaje-servicio: una herramienta para educar desde y para la justicia social. *Revista internacional de educación para la justicia social, 2*(2), 5-11. Disponible en http://www.rinace.net/riejs/numeros/vol2-num2/editorial.pdf
- Arnau Ripollés, Mª. S. (2003). Una Construcción Social de la Discapacidad: El Movimiento de Vida Independiente. *VIII Jornadas de Fomento de la Investigación de la Facultad de Ciencias Humanas y Sociales* (pp. 1-11). Castellón, España: Universitat Jaume I. Disponible en http://www.uji.es/bin/publ/edicions/jfi8/hum/42.pdf
- Balbi, J. P., Chamorro, N. y Márquez, S. (2007). *Aprendizaje-servicio. Conceptos, reflexiones y experiencias*. Montevideo, Uruguay: Centro de Voluntariado del Uruguay.
- Batlle, R. (2009, octubre). *Participación ciudadana y voluntariado en la adolescencia: ¿Qué aporta el aprendizaje-servicio*?. Comunicación presentada en Seminario Adolescentes en tiempo de crisis, Portugalete, España.
- Batlle, R. (2010). Aprendizaje-servicio y entidades sociales. *Aula de Innovación Educativa*, (192), 66-68. Disponible en http://www.innovasocial.com/files/2010/07/Aprendizaje-servicio-y-entidades-sociales.pdf
- Batlle, R. (2010b). Organizaciones sociales y aprendizaje servicio. *TZHOECOEN*, (5), 81-91. Disponible en http://www.clayss.org.ar/archivos/TZHOECOEN-5.pdf
- Batlle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje servicio?. *Revista crítica*, (972), 49-54. Disponible en http://revista-critica.com/wp-content/uploads/2012/10/972.pdf
- Battle Suñer, R. (2013). *El aprendizaje-servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria*. Madrid, España: PPC.
- Bauman, Z. (2002). *Modernidad liquida*. Buenos Aires, Argentina: Fondo de Cultura Económica.
- Billig, S (2008). K-12 Service-learning Standards for Quality Practice. In: J. C Kielsmeier, M. Neal, N. Schultz & T. J. Leeper (Eds.). *Growing to Greatness 2008: The State of Service-Learning* (pp. 8-15). Disponible en http://www.nylc.org/sites/nylc.org/files/files/G2G08.pdf

- Blanco de Di Lascio, C. (2007). La Prosocialidad en el proyecto educativo del aprendizaje-servicio: la búsqueda de la identidad comunitaria. En A. González y R. Montes (Comp.) *10º Seminario Internacional "Aprendizaje y Servicio Solidario". "Cumpliendo una década"* (pp. 142.146). Buenos Aires, Argentina: Ministerio de Educación de Argentina.
- Bringle, R.G., & Hatcher,J.A. (1999). Reflection in service-learning: Making Meaning of Experience. *Educational Horizons*, *7*(4), 179-185. Disponible en http://www.usfca.edu/uploadedFiles/Destinations/Institutes_and_Centers/OSL/docs/Bringle_Making_Meaning_of_Exp.pdf
- Cabrera, F., Donoso, T., Folgueiras, P. y Luna, E. (2009). La participación ciudadana: un reto para la educación para la ciudadanía. *Revista de Educaçao ciencia e cultura, 14*(1), 63-84. Disponible en http://revistas.unilasalle.edu.br/documentos/Educacao/V14_1_2009/04_Flor_Cabreral.pdf
- Cecchi, N.H. (2006, abril). *Aprendizaje Servicio en Educación Superior. La experiencia latinoamericana.* Presentación presentada en el Seminario Internacional Responsabilidad Social Universitaria: Aprendizaje Servicio, Caracas, Venezuela.
- Centeno, A. (2009, 5 de febrero). Redes de conocimiento emancipador. [Entrada de blog]. Recuperado de http://antoniocenteno.blogspot.com.es/2009/02/redes-de-conocimiento-emancipador.html
- Cruz, A. (2003). *Aprendizaje-servicio: El diseño de proyectos.* Disponible en http://www.ciens.ula.ve/scciens/documentos/aprendiendo_juntos.pdf
- De Sarratud, A. (2010). El verdadero significado del protagonismo de la participación ciudadana en la gestión pública. *Observatorio Laboral Revista Venezolana,* 3(5), 61-74. Disponible en http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=219014912004
- Durston, J. (1999). Construyendo capital social comunitario. *Revista de la CEPAL,* (69), 103-118. Disponible en http://www.eclac.cl/publicaciones/xml/1/4421/lcg2067e.pdf
- Eberly, D. y Roche, R. (2002). Aprendizaje-servicio y prosocialidad. En Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario. *Aprender sirve, servir enseña* (pp. 38-38). Buenos Aires, Argentina: CLAYSS.
- Ferran Zubillaga, A. y Guinot Viciano, C. (2012). Aprendizaje servicio: Propuesta metodológica para trabajar competencias. *Portularaia,* 12(nº extra), 187-195. Disponible en http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/5968/Aprendizaje_servicio.pdf?sequence=2
- Francisco Amat, A. & Moliner Miravet, L. (2010). El Aprendizaje Servicio en la Universidad: una estrategia en la formación de ciudadanía crítica. *Revista Electrónica*

*Interuniversitaria de Formación del Profesorado (REIFOP), 13*(4), 69-77. Disponible en http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1291992629.pdf

- Francisco Amat, A., Nos Aldás, E. y Moliner Miravelt, L. (2011). *Aprendiendo a transformar el entorno. El uso del aprendizaje servicio en la educación superior*. Castellón, España: Universitat Jaume I.
- Freire, P. (1975). *Pedagogía del oprimido*. Madrid, España: Siglo XXI.
- Furco, A. (2004). Impacto de los proyectos de aprendizaje-servicio. En A. González y R. Montes (Comp.) *7mo. Seminario Internacional "Aprendizaje y Servicio Solidario". Aprendizaje y servicio solidario en la Educación Superior y en los sistemas educativos latinoamericanos* (pp. 19-26). Buenos Aires, Argentina: Ministerio de Educación de Argentina.
- Furco, A. (1996). Service-Learning. A Balanced Approachto Experiential Education. *Expanding Boundaries: Service and Learning,* 2-6. Disponible en http://www.sonoma.edu/TRIO-training/research/service-learning/balanced-approach.pdf
- García Gómez, T. (2011). Aportaciones ciudadanas desde el aprendizaje servicio: universidad, escuela y comunidad conectadas. *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado, 25*(2), 125-141. Disponible en http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27422047007
- Geva, E. y Fish, T. (2012, marzo). *Cómo los proyectos de Aprendizaje Servicio puede favorecer la participación social en personas con discapacidad intelectual*. Comunicación presentada en VIII Jornadas Científicas Internacionales de Investigación sobre discapacidad, Salamanca, España.
- Gijón Casares, M. (2011). *Guía: Aprendizaje servicio e inclusión social*. Barcelona, España: Centre Promotor d'Aprenentatge Servei.
- Gil Gómez, J. y Martí Puig, M. (2012). Una experiencia intergeneracional: Innovación metodológica mediante la metodología del aprendizaje-servicio en educación infantil [Exclusivo en línea]. *Quaderns Digitals.* Recuperado de http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaArticuloIU.visualiza&articulo_id=11145
- González, A. (2013). Participación y sociedad civil. *Mas poder local*, (14), 56-57. Disponible en http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4247715
- Hernández, A.M. (2009). Aprendizaje-Servicio como elemento para el Fortalecimiento de la Calidad Académica. *Dialogus.* (3), 15-21. Disponible en http://www.documentacion.edex.es/docs/0418MARapr.pdf

- Kliksberg, B. (1999). Capital social y cultura, claves esenciales del desarrollo. *Revista de la CEPAL* (69), 85-102. Disponible en http://www.eclac.cl/publicaciones/xml/1/4421/lcg2067e.pdf
- López Margall, A. (2011, octubre). *Responsabilidad social y aprendizaje servicio.* Comunicación presentada XII Congreso Internacional de Teoría de la Educación, Barcelona, España.
- Luna Gonzalez, E. (2010). *Del centro educativo a la comunidad: Un programa de aprendizaje-servicio para el desarrollo de la ciudadanía activa*. Universitat de Barcelona, Barcelona.
- Malacrida, M. G. (2012). Aprendizaje-servicio y desarrollo local y territorial. En M.N. Tapía y M.A. Herrero (Comp.), *II Jornada de Investigadores sobre Aprendizaje-Servicio* (pp. 25-29). Buenos Aires, Argentina: CLAYSS.
- Marín Escobar, J.C. (2010). Revisión teórica respecto a las conductas prosociales. Análisis para una reflexión. *Psicogente, 13*(24), 369-388. Disponible en http://publicaciones.unisimonbolivar.edu.co/rdigital/psicogente/index.php/psicogente/article/viewFile/239/228
- Martínez Domínguez, B. (2012). Los proyectos de aprendizaje y servicio solidario. Una oportunidad para desarrollar la educación inclusiva. En A. Parrilla y M. López (Coord.), *Primer Congreso Internacional Reinventar la profesión docente "La formación de los docentes y el curriculum escolar: la atención a la diversidad y formación para la convivencia"* (pp. 96-111). Málaga, España: Universidad de Málaga.
- Martínez Odría, A. (2007). Service-learning o aprendizaje-servicio. La apertura de la escuela a la comunidad local como propuesta de educación para la ciudadanía. *Bordón, 59*(4), 627-640. Disponible en http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2582784
- Mayor Paredes, D. (2013). Aprender realizando una actividad de utilidad social. "Guía básica para el diseño de proyectos de A-S" [Exclusivo en línea]. *Revista de Educación social* (16). Disponible en http://www.eduso.net/res/pdf/16/apren_res_16.pdf
- Melillo, A. (2004). El concepto de Resiliencia. En A. González y J. Elicegui (Comp.), *5to. y 6to. Seminario Internacional "Aprendizaje y Servicio Solidario". Aprendizaje y Servicio Solidario* (pp. 62-68). Buenos Aires, Argentina: Ministerio de Educación de Argentina.
- Mendía Gallardo, R. (2012). El Aprendizaje-Servicio como una estrategia inclusiva para superar las barreras al aprendizaje y a la participación. *Revista educación inclusiva*, *5*(1), 71-82. Disponible en http://www.ujaen.es/revista/rei/linked/documentos/documentos/15-6.pdf
- Mendia, R. y Moreno, V. (2010). *Guía Zerbikas 3: Aprendizaje y Servicio Solidario, una estrategia para la inclusión social*. Bilbao, España: Zerbikas Fundazioa.

- Novella Gil, I. (2013). Aprendizaje y Servicio Solidario: una estrategia prometedora para la Inserción Social. [Exclusivo en línea]. *Revista de Educación social* (16). Disponible en http://www.eduso.net/res/pdf/16/santur_res_16.pdf
- Páez, Sánchez M. y Puig Rovira, J.M. (2013). La reflexión en el Aprendizaje-Servicio. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social (RIEJS), 2*(2), 13-32. Disponible en http://www.rinace.net/riejs/numeros/vol2-num2/art1.pdf
- Palau del Pulgar, M.E. (2006, abril.). La educación prosocial aportación al aprendizaje servicio. Ponencia presentada en el Seminario Internacional Aprendizaje Servicio, Caracas, Venezuela.
- Pié Balaguer, A. (2012). La dimensión política de la dependencia. En A. Pié Balaguer (Coord.) *Deconstruyendo la dependencia. Propuestas para una vida independiente* (pp. 111-184). Barcelona, España: UOC.
- Puig Rovira, J., Gijón Casares, M., Martín García, X. y Rubio Serrano, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de Educación,* (nº extraordinario), 45-67. Disponible en http://www.revistaeducacion.mec.es/re2011/re2011.pdf
- Puig Rovira, J.Mª. y Palos Rodríguez, J. (2006). Rasgos pedagógicos del aprendizaje-servicio. *Cuadernos de pedagogía,* (357), 60-63. Disponible en http://www.documentacion.edex.es/docs/0401CALapr.pdf
- Puig, J. Mª. (Coord.). (2009). *Aprendizaje servicio: educación y compromiso cívico.* Barcelona, España: Graó.
- Puig, J.M.ª (2011). ¿Por qué el aprendizaje servicio crea humanidad?. *Aula de Innovación Educativa,* (203-204), 10-15. Disponible en http://convivencia.files.wordpress.com/2012/09/aprendizaje_serv.pdf
- Puig, J.Mª., Batlle, R., Bosch, C. & Palos J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía.* Barcelona, España: Octaedro.
- Roche Olivar, R. (1995). *Psicología y educación para la prosocialidad.* Barcelona, España: Universidad Autónoma de Barcelona.
- Roche Oliver, R. (1997, junio). Fundamentos psicológicos y pedagógicos del aprendizaje-servicio: la educación prosocial. Ponencia presentada en Seminario Internacional "Educación y servicio comunitario", Barcelona, España.
- Rodríguez Martínez, C. (2008). *Educar a la ciudadanía. Un proyecto político*. Madrid, España: Miño y Dávila Editores.
- Rubio, L. (2008). *Guía Zerbikas 0: Aprendizaje y servicio solidario. Guía de bolsillo.* Bilbao, España: Zerbikas Fundazioa.

- Rubio, L. (2011). ApS: Aterrizaje entre teoría y práctica. *Aula de Innovación Educativa,* (203-204), 34-37. Disponible en http://mestreacasa.gva.es/c/document_library/get_file?folderId=500005293504&name=DLFE-274011.pdf
- Sotelino Losada, A. (2013). Aprendizaje servicio y educación superior: el proyecto peinas. En A. Gewerc. (Coord.) *I Congreso Internacional "Conocimiento, tecnología y enseñanza: políticas y prácticas universitarias"* (pp. 270-272). Santiago de Compostela, España: Universidad de Santiago de Compostela.
- Tapia, M. N. (2004). *Aprendizaje y servicio solidario*. Madrid, España: CCS.
- Tapia, M. N. (2009). Aprendizaje-servicio y calidad educativa. En A. González, R. Montes y L. Nicoletti-Altimari (Comp.) *11mo. Seminario Internacional "Aprendizaje y Servicio Solidario".* Excelencia académica y aprendizaje-servicio en la escuela y la Educación Superior (pp. 37-67). Buenos Aires, Argentina: Ministerio de Educación de Argentina.
- Tapia, M.N. (2001). *La solidaridad como pedagogía. El aprendizaje-servicio en la escuela (2a Ed.). Buenos Aires, Argentina: Ciudad Nueva.*
- Tapia, M.N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario: en el sistema educativo y las organizaciones juveniles.* Buenos Aires, Argentina: Ciudad Nueva.
- Tapia, M.N. (Coord.) (2004b). *Manual integral para la participación solidaria de los jóvenes en proyectos de aprendizaje-servicio.* Disponible en http://www.documentacion.edex.es/docs/1304CLApas.pdf
- Tapia, M.N., Elicegui, P. y Hernáiz, I. (2007). *10 años de aprendizaje y servicio solidario en la Argentina.* Argentina: Ministerio de Educación de Argentina.
- Tapia, M.N., Hernán A., Montes, R., Tapia, M.R. e Yaber, L. (2013) *Manual para docentes y estudiantes solidarios.* Buenos Aires, Argentina: CLAYSS.
- Tedesco, J.C. y Tapia, M.N. (2008). *El aprendizaje- servicio en la Educación Superior. Una mirada analítica desde los protagonistas*. Buenos Aires: EUDEBA.
- Uruñuela Nájera, P.Mª. (2011). Aprendizaje-servicio, una metodología para el desarrollo de la convivencia. *AMAzônica,* *6*(1), 35-61. Disponible en http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3915939
- Zamarrón Cassinello, Mª.D. (2013). Envejecimiento activo: un reto individual y social. *Sociedad y Utopía,* (41), 449-463. Disponible en http://www.sociedadyutopia.es/images/revistas/41/D15.pdf